


# JAKINGARRIAK 12

1989ko Martxoa

# JAKINGARRIAK

«JAKINGARRIAK» honetan zenbait berrikuntza agertzen da, formatoari dagozkionak eta informazioari dagozkionak ere bai. Aldaketa hauek, aurrekoek bezala, helburu bat bete nahi dute: «Jakingarriak» aldizkariaren funtzionaltasuna areagotu.

Hemendik aurrera «JAKINGARRIAK» hiru atal izango ditu:

- Berri bibliografikoak
- Gai monografikoak
- Baliabideak

**Berri bibliografikoak.** Atal honen bidez, arlo ezberdinak sakontzeko liburuen berri emango da: «Liburu berrien albisteak» 0-7 urteko adin honen inguruan oso aldizkari gutxi argitaratzen denez, beste hizkuntzetan (katalanez, frantsesez,...) argitaratutako artikulu interesgarrien itzulpenak eskainiko ditu D. Zentruak: «aldizkarietako artikulu interesgarrien laburpena eta itzulpena».

Iturri ezberdinetatik eta gai ezberdinen inguruan, beste hizkuntzetan, jasotako liburuen kapitulu batzuk eskainiko dira: «Itzulpenak».

**Gai monografikoa.** Orain arte, atal honetan, gai baten inguruan, D. Zentruan zegoen informazioaren berri ematen zen. Hemendik aurrera, informazio honekin batera, gain honen inguruan, ikastetxe ezberdinetan egin diren esperientziak... azaltzen ahaleginduko gara.

**Baliabideak.** Atal honetan D. Zentruak sortutako ala bildutako materialak eskeiniko dira.

**Laugarren atala.**
«JAKINGARRIAK» oraingoz hiru atal hauek osatzen badute ere, laugarren atal bat zabaltzea da gure asmoa, **inguruko esperientzien berri** jasoko duen atala. Atal honetan eskoletan egiten ari diren esperientzia interesgarrien berri emango da. Honela, D. Zentruak hasieratik zuen helburu bat beteko du: Irakasleen esperientzi ezberdinen biltegi izatea●

## LIBURU BERRIEN ALBISTEAK

### Haurren hizkuntzaren ikaskuntza prozesua hobeto ezagutzeko hiru liburu interesgarri.

**Jarraian aztertzen diren hiru liburuak, nahiz eta arlo ezberdinak aztertu, badute zerbait amankomunean: hizkuntzaren erabilera, funtzionalitatea, azpimarratzen dutela.**




## JOAN TOUGH

*El lenguaje oral en la escuela*

Aprendizaje Visor MEC 1987

«El propósito de esta obra es ayudar a los maestros a hacer una valoración de las destrezas del niño para utilizar el lenguaje mientras le escucha y habla con él, ayudándole a explorar ideas y experiencias».

Liburuaren hasieran aipatzen den helburua betetzen dela azpimarratu behar dugu. Liburuan zehar adibide praktikoen bidez haurren hizkuntza jasotzeko, aztertzeko... bideak azaltzen dira.

Liburuak hiru atal ditu:

**Lehenengo partean**

«Aprender a utilizar el lenguaje: los años antes de la escuela», haurren ikaskuntza prozesuari buruz zenbait zehazpen ematen dira:

- Arlo kognitibo eta komunikatiboaren arteko loturak.
- Ikaskuntza-prozesuan eragina duten faktoreak eta bereziki helduekin dituzten interakzioen kalitatea.

**Bigarren partean.**

«El uso social de la conversación y los problemas en la utilización del habla». Atal honetan haurren hizkuntza behatzeko tresna oso baliagarriak ematen dira, baita jasotako datuak interpretatzeko ere.

Haurren behaketen interpretaziotik abiatuz, haurrek eduki ditzaketen zenbait hizkuntz arazo azaltzen dira.

**Hirugarren partean.**

«La valoración del uso social del lenguaje». Atal honen hasieran hizkuntz funtzioen sailkapen bat eskaintzen da: sailkapen hau tresna oso praktikoa da haurrek hizkuntza zertarako erabiltzen duten jakiteko.

Gure ustez, liburu honek eskaintzen dituen erizpideak erabat baliogarri eta erabilgarriak dira gelako eguneroko bizitzan.

Beraien aplikapenak gelako komunikazioa aberastuko du eta, ondorioz, haurren hizkuntza.




## GORDON WELLS

*Aprender a leer y escribir*

Cuadernos de Pedagogía, Laia, Barcelona 1988

Gordon Wellsek haurren hizkuntza aztertzeko eguneroko bizitzan (etxean, ikasgelan) ematen diren interakzioak hartzen ditu abiapututzat, egoera hauek hizkuntzaren ikaskuntza prozesuaren oinarri direlarik.

Haur batzuen jarraipen sakonetik ateratako datuak (bideograbaketak, magnetofoiz egindako grabaketak, gurasoekin eta irakasleekin izandako elkarrizketak) erabiltzen ditu, ahozko eta idatzizko hizkuntzaren ikaskuntza-prozesuan ematen diren zenbait berezitasun sakontzeko:

- Garapenean ematen diren etapen deskribapena
- Heldu eta haurren arteko portaerak
- Elkarrizketak duen garrantzia.

Datu hauen bidez komunikazioaren ikuspegi zabala eta sakona eskaintzen du, ikaskuntza-prozesuan haurrak duen egínkizun aktiboa azpimarratuz.

Etxeko eta eskolako jokaeren arteko berdintasunak eta ezberdintasunak, liburuan garrantzi handia duen beste gai bat da. Liburua irakurriz egoera bietan dauden helduen portaera ezberdinez jabetzen gara, baita egoerak berak bultzatzen dituen ekintzez eta hizkuntzaren erabilpenez ere.

Eskolan ematen diren hutsuneak gainditzeko «elkarlanean hezi» ideia garatzen du.

Liburuaren azkenengo partean irakurketa eta idazketak eskolemaitzetan duen garrantzia azpimarratzen du.

Haurren emaitzen arteko ezberdintasunen arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen aztertzen du liburuaren beste atalean:

- Faktore soziokulturalak
- Famili egoera konkretuak

Bere ikerketako datuez baliatuz Bernstein eta beste batzuren teoriak eztabaidatzen ditu.

Bukatzeko, irakurketa eta idazketaren ikaskuntza-prozesuan lagungarriak izan daitezkeen ekintzei buruz hausnarketa egiten du, eta, bereziki, txikitatik ipuinak entzutearen garrantziaz.

Puntu hau aztertzeko hizkuntza kontestualizatu eta deskontestualiza-

tuen arteko ezberdintasunak aztertzen ditu. Ipuinen kontaketak hizkuntz deskontestualizatuaren eredua eskaintzen dio haurrari, gero irakurtzerakoan testuetan aurkituko duena, hain zuzen.




JEROME BRUNER
*El habla del niño*
Paidos, Barcelona 1986

Liburu honetan, komunikazioan haurrak ematen dituen lehen urratsak aztertzen dira, hau da, zerbait transmititzen (komunikatzen) hasten den momentutik ahozko mintzairaren ezagutzaren lehen pausuetaraino.

Ikaskuntza-prozesuan ematen diren mekanismoak aztertzerakoan, Chomskyren teoria inatisten aurrean, kultur transmisioaren garrantzia azpimarratzen du, baita haurren inguruko helduen eginkizuna ere, zeren eta biek -helduak eta haurrak- mintzaira erabiliz egiten dituzten elkarrekintzen bidez, komunikazioa garatzeko gero eta baliabide konplexuagoaren jabe egingo bait da haurra.

Etapa horietan nolako interakzioa dagoen aztertzerakoan, beti portaera berdintsua aurkitzen du, «formatoa» deritzona; eta formato horretan zenbait mekanismo sartzen da, ikaskuntza-prozesua bultzatzeko balio dutenak.

Ezkutaketa, kuku-jolasa, liburu-irakurketa, etab., ikuspegi honetatik aztertzen ditu. Bi portaera zehatzen -«erreferentziaren haziera» eta «eskaeraren garapena»ren- azterketa bidez, komunikazioa ulertzeko funtsezkoak diren kontzeptuetan sartzen gaitu:

- Aditasun bateratuaren garapena.
- Esanahiaren negoziazioa.
- Testuinguruaren erabilera.

Orain artean aipaturiko hauek, mintzairaren erabileran eta helduen eta haurren arteko interakzio-prozesuen behaketan oinarritzen dira; eta beraz, grabaketen transkripzioetatik ateratako zenbait adibide ere aurkituko dugu, liburuan zehar garatu diren kontzeptuak justifikatu eta argitzen dituelarik beroriekin.

## ITZULPENAK

### 1.- Reflexión sobre el aprendizaje de la toma de apuntes por los alumnos.

(Notas metodológicas, Actividades sobre los textos, Dep. de Instrucción Pública del Canton de Vaud).

«Apunteak hartu» delako aktibitatea behar beharrezkoa du ikasleak. Gehienetan eragiketa hau O.H.O.ko goiko ziklorako uzten da, baina Erdiko Zikloan ere has daiteke lantzen.

Proposatzen dizuegun artikulu honetan ondoko puntuak aurkituko dituzu:

- ez dela berdina:
  - ahozkotik eta idatzizkotik hartzea.
  - irakaslearen azalpenetatik eta interbiu batetik hartzea.
- Ikasgaia aldagai bat dela (natur, gizarte,...)
- apunteen funtzioa aldagai bat dela.

Beraz apunteak hartu aurretik guzti hau kontutan izan behar genukeela.

Artikuluan bertan aurkituko dituzu praktikara eramateko oinarrizko hainbat gomendio.

### 2.- Una actividad marco: La encuesta.

(Enseñanza del francés 7 a 9 curso, notas metodológicas)

Material monografiko hau «Goiko Zikloko» ikasleekin erabiltzeko izan da prestatua. Bertan aurkituko dituzu, ikasleekin inkesta bat burutzeko, behar diren gomendio eta urrats guztiak pausuz-pausu.

Hona hemen aurkituko dituzun puntuak:

- Inkestaren balioa eta bere testuingurua.
- Inkesta bat burutzeko gairik aproposenak.
- Ikasleen lanaren antolaketa (adibide burutuak)
- Ikaslearen lan-kontratua.
- Fitxa teknikoa: galdeketa (adibide burutuak)
- Ondorioak.

# ALDIZKARIAK

## BUTLLETI DELS MESTRES




### BUTLLETI DELS MESTRES 221, juliol-septemabre 1988

**Monografikoa: «Llenguatge», 4-79 orr.**
Monografiko honek hizkuntzaren didaktikari dagozkion zenbait gai interesgarri aztertzen ditu; bai haur txikiei begira eta bai nagusiei ere:

- 3. hizkuntza eskolan
- Baliabide ezberdinen erabilera
- ...

**Aldizkari honetatik ondoko artikulua itzuli dugu:**
**«Propuesta curricular de lenguaje oral para la etapa 0-6 años», 4-22 orr.**; artikulu hau aukeratu dugu, batetik, D. Zentruaren adin barruan sartzen delako; eta bestetik, eskeintzen diren proposamen metodologikoak oso interesgarri eta erabilgarriak iruditu zaizkigulako.

## CUADERNOS DE PEDAGOGIA

Cuadernos de Pedagogía

### CUADERNOS DE PEDAGOGIA 161, julio-agosto 1988

**Gai monografikoa: «El profesor ese desconocido», 5-96 orr.**
Hainbat artikulutako erreflexio, esperientzia eta orientabideren bidez irakaslearen mundura hurbiltze pluridimentsional bat egiten da: haren profesionaltasuna, bete behar dituen funtzioen konplexutasuna, imajina eta autoimajina, maisu berrien zailtasunak, hasierako formazioa eta formazio iraunkorra, Erreforma-proiektua, eta.

### CUADERNOS DE PEDAGOGIA 162, septiembre 1988

**Gai monografikoa: «Tecnología en la escuela», 7-30 orr.**
Monografiko honetan kultura teknologikoaren desafioari buruzko hainbat erreflexio eta esperientzia eskaintzen dira eta honek gaurko heziketan duen eragina.

**Muñoz, M. Martínez Garrido, A., «Antecedentes y didáctica» 8-11 orr.**
Teknologiaren irakaskuntzaren ikuspegi sintetikoa.

**Averbuj, E., «¿Educación tecnológica? Sí, gracias», 12-14 orr.**
Gaurko hezkuntza-erreformak heziketa teknologikoari planteatzen dizkion galdera, posibilitate eta arriskuak.

**Gonzalo, R.,«El profesor, meca de la educación tecnológica»,16-21 orr.**Haur-eskolan teknologiak tokia duela erakusten digun esperientzia baten azalpena.

**Baigorri, J., «¡Hágase la luz!», 21-23 orr.**

**Portela, J. «Hacia la resolución de problemas reales», 21-23 orr.**
Bi artikuluek O.H.O. eta B.B.B.ko lan konkretuen esperientziak azaltzen dituzte.

**«El educador especializado»ri buruzko dossier-a, 83-97 orr.**
Lanbide berri honetara eta, orokorki hartuta, heziketa sozialera hurbilketa.

### CUADERNOS DE PEDAGOGIA 163, octubre 1988

**Gai monografikoa: «Los cuatro pedagogos: Montessori, Decroly, Freinet, Piaget», 7-34 orr.**
Bartzelonako I.M.E.k lau autore hauei buruz antolatutako erakusketa dela eta, aberaiengan oinarritutako lau esperientzia, proposamen pedagogiko bakoitzaren hiztegia, bibliografi komentatua eta interesgarriak diren zenbait helbide aurkezten ditu C.P.k.

**Jiménez Lobo, B., «Las matemáticas pueden esperar», 46-47 orr.**
Txita baten heriotzak eta haurren nahiagabearen esperientziak irakasle bat bere buruari zera planteatzera darama: heriotzaren errepresentazioa haurrarengan.

**Cabrera, M.L., Garrido, A., «Los niños de 0 a 6 años ya no podrán crecer juntos», 66-67 orr.**
Haur-Eskolaren Erreforma-Proiektua kritikatzen dute.

### CUADERNOS DE PEDAGOGIA 164, noviembre 1988

**Gai monografikoa: «Educación y derechos humanos», 7-29 orr.**
Artikuluak, dokumentuak, bibliografia, helbideak, liburutegiak, ...

**Batzu, «Aprender en nuestro jardín», 27-29 orr.**
Urtaroen aldaketatik abiatuta, landare eta loreen ikasketaren esperientzia

**Batzu, «El ajedrez en la escuela», 37-41**
Artikuluak joku honen hezkuntz balio posibilitateak erakusten dizkigu.

**«Carlos Lerena, in memoriam...», 56-59 orr.**

**«Cuadernos de Literatura infantil», 79-95 orr.**
Nobela poliziakoa, Sherlock Holmes, nobela beltzaren gida, bibliografia, haurrentzako liburu hautapena.




## CUADERNOS DE PEDAGOGIA 165, diciembre 1988

**Gai monografikoa: «Valores y educación», 7-29 orr.**
Hil honetako monografikoa koordenada hauetan kokatzen da. Rafael Grasa-rena da lehen artikulua («Paisaje para una polémica»): baloreak hezkuntzan dituzten alderdi eztabaidatuenei, ikuspegi ezberdinei eta potentzial didaktikoei buruzko gogoetak egiten ditu. Santiago Esteban eta Jose Bueno-ren «Consenso en valores y proyecto educativo» artikuluak, ikastetxean kontsentsua lortzeko ahalbideak eta estrategiak aztertzen ditu. «Decidir sin marginar» delakoan, delakoan, Rafael Grasa eta Paco Gascón-ek talde/gelan erabakiak hartzeko eta gatazkak konponbideratzeko prozesua azpimarratzen dute. Jose Luis Corzok, bere aldetik, albisteetan zehar baloreak aztertzeko prentsaz baliatzeak dituen abantailak aipatzen ditu. José Enrique Monterde-ren «Recursos videográficos» eta Teresa Duran-en «Las tipologías de la literatura infantil», baloreen mundu konplexu eta konprometitu horretan dagoen material ugaritasunaren adierazgarri dira. Eta beti bezala, bibliografia gomendatuz amaitzen dugu.

**Diez, M.C., «El espacio como proyecto», 30-31 orr.**
Espazioaren antolaketa mintzaira autoritario bat bezalakoa da: beraren bidez, zaratotsik gabe, aginduak ematen ditugu, eta jokabide batzuk debekatzen ala baimentzen ditugu. Zer gertatzen da haurrek erabakiz gero zer egin, nola eta zein espaziotan? Abentura bat hasten da...

**Batzu, «Nuestra amiga el agua», 32-34 orr.**
Igeri egitea piszinara sartzea baino askoz gehiago da: Eskolaurre eta Hasierako zikloko haurrekin zertutako esperientzia baten berri ematen da artikulu honetan. Gorputz-hezkuntzaren ikuspegi berri baten inguruan planteatzen dira ur-iharduketak; baita lagun bat -ura- ezagutu eta berarekin gozatzeko ideiaren inguruan ere.

**Medrano, C., «A favor de la jornada continua», 35-38**
Gasteizko «Ramón Mª del Valle Inclán» Ikastexe Publikoan plan esperimental baten -ihardun jarraituaren- bigarren ikasturtea da aurtengoa. Artikulu honetan helburuak, proiektuaren garapena eta antolamendu eta pedagogi eredu berri honen ontasuna frogatzen duten arrazoiak azaltzen dira.

**Hernández, I., «Navidad en la escuela», 40-41 orr.**
Laster izango dira Gabonak. Egun hauetan, eskola askok antolatzen dituzte ekintza bereziak. Artikulu honetan orekatuta dago ludikoa eta curricularra: ezagutza-arloak Gabonak gaiaren inguruan txertatzea proposatzen da... baita jaialdi bat antolatzea ere.

**Cubero, R., «Los esquemas de conocimiento de los niños» Un estudio sobre el proceso digestivo. 57-60 orr.**
Artikulu honetan,ikasleen aurretiazko ideien ezaugarriak analizatzen dira, eta nutrizioaren inguruan haurrek dituzten errepresentazioei buruzko ikerketa baten ondorioak azaltzen dira.

**Gallardo, J.A., «El maltrato físico», 62-66**
Tratu txarren eta zigor fisikoen geografia eta historia hedatuak bezain urrutikoak dira. Zenbait datu eskaintzen da hemen, eta aldi berean, zergati nagusiak eta eskolan berorietaz ohartzeko argibideak ematen dira.




## CUADERNOS DE PEDAGOGIA 166, enero 1989

**Batzu, «¡ qué matemáticas?», 8-10 orr.**
Matematikaren irakaskuntzaren esparru espezifikoan sartu aurretik, izaera pedagogiko orokorreko gogoeta batzuk egiten dituzte autoreek, beti ere, egungo gizartean hezkuntza integrala lortu nahi duen eskolaren proiektuari buruz. Aurregogoeta horietatik abiatuz aztertzen dituzte gero hezkuntza matematikoaren edukiak, ikasleen errealitatearekio erlazioa eta metodologi eta didaktika mailako arazo zehatzagoak.

**Díez, M.C., «Viaje al reino de 'Lo Bolini'», 28-30 orr.**
Beste hainbat proiektu ere sortu eta eskaintzen diren bezalaxe jakin genuen granja-eskola hau ere bazegoela. Beste kontu bat izan zen ikustera hurbildu... eta betikoa zirudien hondamendi baten susperketa liluragarrian harrapatuta geratzea.

**Ibáñez, C., «Una jornada escolar», 31-33 orr.**
Eskol denboraren banaketa oso lotua dago bultzatzen diren planteamendu pedagogiko eta iharduerekin. Hona adierazgarri da hemen aurkezten dugun eskolaurreko esperientzia, aberatsa, batez ere, elkarbizitza eta ikasteari begira.

**Batzu, «Un pequeño zoo en la clase», 38-42 orr.**
Animalien azterketa, modulu globalizatu egokien eta liluragarrienetako bat bihur daiteke erdiko zikloko ikasleentzako. Zaragozako «Zalfonada» Ikastetxe Publikoan egindako animali bildumak horrela baieztatzen du.

**Subirá, M.J., «Así nacen nuestros cuentos», 59-61 orr.**
Aragoiko Pirineoen erdi-erdian, Villanovan, eskola unitarioko maistra batek ipuin-sorketaren prozesu kolektiboa azaltzen du, konposizio literariotik hasi eta inprimaketa eta antzespenerainoko prozesua; beren bertako hizkuntzan egiten dute, «patues» delakoan, alegia.

**Trilla, J., «A.S. Makarenko», 81-83 orr.**
Iaz bete zen, mende honetako pedagogorik garrantzitsuenetariko baten —Anton Semionovich Makarenko-ren— jaiotzaren mendeurrena. Eta aurten beteko da beraren heriotzaren 50. urtemuga. Genio honen obraren berrirakurketa liluragarria da, eta ñabardura berriak eskaint-

zen dizkigu beti. Ezagutzen ez dutenek, lerro hauen irakurketa har bezate gonbidapentzat.




## CUADERNOS DE PEDAGOGIA 167, febrero 1989

**Cabanellas, I., «Los primeros dibujos infantiles», 11-13 orr.**
Zertarako balio du haurren marrazkiak analizatzeak? Artikulu honetan hipotesiak egiten dira eta arauen eta estrategien lehen lerroak eskaintzen dira, heldua arrakastatsu murgil dadin haur-produkzioaren munduan.

**Martínez, E., Delgado, J., «La arcilla en el aula», 17-19 orr.**
Autoreek diotenez, hirudimentsiozko teknika bezala buztina egoki erabiltzeak ikaslearen sormen eta ezagueraren alderdi asko garatzen laguntzen du. Material honen ukipena eta manipulazioa zein eratan sekuentziatu behar den azaltzen dute artikulu honetan.

**Hidalgo, M.V., «Bebés ante el espejo», 52-54 orr.**
Egin berri diren ikerketek erakutsi dutenez, haurrek autokontzeptu egokia garatzea funtsezkoa da eskolara eta gizartera egoki moldatzea lortzeko. Honetarako beharrezkoa da aztertzea norberaren ezagutza nola hasten den eratzen. Eta orrialdeotan laburbildutako ikerketa ahalegin bat da ildo horretatik.

## L'ECOLE MATERNELLE FRANÇAISE




## L'ÉCOLE MATERNELLE 1, septembre-octobre 1988

### Fitxak:

- **Motrizitatea:**

Sierra, L., «Placer les enfants dans les situations inhabituelles.» (3 urte), 25-26 orr.

Sierra, L., «Structurer sa locomotion: adapter sa course à la situation, rechercher la vitesse» (4 urte), 27-28 orr.

Sierra, L., «Rendre les réponses motrices plus efficaces, à travers une action: la course» (5. urtea), 29-30 orr.

- **Matematika**

Batzu, «Une histoire de poissons» (3 urte), 31-32 orr.

Batzu, «Résolution d'un problème... une sortie en car» (5 urte), 33-34 orr.

- **Esperientzi arloa**

Batzu, «Susciter l'observation, la réflexion, l'action. Réalisation d'un plan de montage» (5 urte), 35-36 orr.

Batzu, «Biologie: le sang», 37-38 orr.

- **Gelako antolaketa**

Bruzeau, F., Netter, G., «Des activités qui entraînent l'envie d'essayer, de faire,...» (3 urte), 43-44 orr.

Nee, D., «Des regroupements qui ponctuent la vie du groupe», 45-46 orr.

- **Dantza**

Le Nouvel, C., Daumont, J., «Inciter l'enfant à accuper l'espace, à écouter, à imaginer,...», 51-52 orr.

- **Musika**

Larbre, C., Villard, M., «Education de la perception auditive», 53-54 orr.

- **Artea**

Bisseret, E., «Obtenir des oeuvres personnelles, expresives, authentiques», 55-56 orr.

Athomas, J.M., «La photographie», 57-58 orr.

## L'ÉCOLE MATERNELLE 2, novembre 1988

Gilabert, H., «L'éducation à la non-violence. Entretien avec Pierre Karli», 3-8 orr.

Carlux, C., Boudon, S., «La construction de l'espace et du temps à travers les activités physiques», 17-23 orr.

### Fitxak:

- **Motrizitatea:**

Sierra, L., «Grande motricité», 25-30 orr.

- **Matematika:**

Batzu, «Exploitation d'une comptine bien connu des enfants» (4 urte), 31-32 orr.

- **Esperientzi arloa:**

Batzu, «Physique: Les ressorts (I)» (4 urte), 35-36 orr.

Batzu, «Le cochon d'Inde ou cobaye» (5 urte), 37-38 orr.

- **Gelako antolaketa:**

Bruseau, F., Netter, G., «Virginie, l'amie de la classe» (3 urte), 43-44 orr.

Frapat, M., «Les regroupements dans la dynamique de la clase» (5 urte), 47-48 orr.

- **Dantza**

Damont, J., Le Nouvel, C., «Une étoffe... la mer», 51-52 orr.

- **Musika**

Villard, M., Larbre, C., «Sons obtenus avec objets usuels», 53-54 orr.

- **Artea**

Marchal, J., «Couleurs et nuances», 55-56 orr.




## L'ÉCOLE MATERNELLE 3, décembre 1988

Hibon, M., «Voir des choses dans le ciel», 3-7 orr.

### Fitxak:

- **Motrizitatea:**

Sierra, L., «Grande motricité» (3 fitxa), 25-30 orr.

- **Matematika**

Batzu, «...L'exploitation d'un jeu de domino.», 31-32 orr.

Batzu, «Construire des décorations pour le sapin de Noël», 33-34 orr.

- **Esperientzi arloa**

Batzu, «Les ressorts (II)», 35-36 orr.

Batzu, «Les corps et ses positions», 37-38 orr.

- **Gelako antolaketa**

Bruzeau, F., Netter, G., «Etre ensemble dans un coin accueillant: les coussins», 43-44

Nee, D., «Regroupements autour d'un document privilégié: la photo de classe», 45-46

Frapat, M., «Les regroupement dans la dynamique de la classe (II)», 47-48 orr.

- **Musika**

Larbre, C., Villard, M., «Activités: tenue corporelle-respiration», 53-54

- **Artea**

Athomas, J.M., «La photographie», 57-58 orr.

## L'ÉCOLE MATERNELLE 4, janvier 1989

Gilabert, H., «A la conquête du nombre. Entretien avec Claire Meljac», 3-8 orr.

### Fitxak:

- **Motrizitatea**

Sierra, L., «Grande motricité (3 fitxa)», 25-30 orr.

- **Matematika**

Batzu, «Situation mathématique» (2 fitxa), 31-34 orr.

- **Esperientzi arloa**

Batzu, «Elevage des tourterelles» (3 urte), 35-36 orr.

Batzu, «Les aimants» (4 eta 5 urte), 37-38 orr.

- **Gelako antolaketa**

Bruzeau, F., Netter, G., «Les dessins évolutifs» (3 urte), 43-44 orr.

Nee, D., «Un crocodile sur le mur de la classe» (4 urte), 45-46 orr.

Frapat, M., «Les regroupements dans la dynamique de la classe» (5 urte), 47-48 orr.

- **Musika**

Larbre, C., VIllard, M., «Maitrisse de la voix chantée», 53-54 orr.

- **Artea**

Athomas, J.M., «La photographie», 55-56 orr.

Marchal, J., «Les expressions du visage» (Hasiera Zikloa), 63-64 orr.

## L'ÉCILE MATERNELLE 5, février 1989

Gilabert, H., «Contes et poésie. Un entretien avec Claude Roy», 3-8 orr.

Dacquin, J., «Faire des mathématiques à l'école maternelle», 17-19 orr.

### Fitxak:

- **Motrizitatea**

Sierra, L., «Grande motricité» (3 fitxa), 25-30 orr.

- **Matematika**

Batzu, «Représenter un quartier en plan; créer un jeu routier», 31-32 orr.

Batzu, «Les jeux de cartes», 33-34 orr.

- **Esperientzi arloa**

Batzu, «De la construction de bateaux à la flottaison», 35-36 orr.

Batzu, «Elevage des tourterelles» (3 urte), 37-38

- **Gelako antolaketa**

Bruzeau, F., Netter, G., «Le livre de la jungle», 43-44 orr.

Frapat, M., «Les regroupements dans la dynamique de la classe», 47-48 orr.

## ESKOLA



## ESKOLA 20-21, 1988.eko ekaina/iraila

Derioko irakasle batzu, «Algunas dificultades en el proceso de aprendizaje escolar entre niños de 11-12 años», 12-17 orr.

Macias, J. M., «El ordenador como herramienta en el área del lenguaje», 29-30 orr.
Informatikak lengoaia-arloari eskaintzen dizkion posibilitateak azaltzen dizkigu.

Etxaniz, J. Lukas, J.F., «Axular lizeoa: B ereduaren eredu bat», 46-49 orr.

Puertas, L.M., «Erabil dezagun irratia lengoaia lantzeko», 58-60

Alvárez, L.M., «La utilización del video en el trabajo lingüístico», 61-64 orr.

Bardon, J.L. «Inprenta eskolan», 65-66 orr.

Bilbatua, M., «Mintzatzen ikasten,mintzatzen irakasten», 68-71 orr.
Euskara lantzeko baliabideak Haur Eskolan eta Hasiera Zikloan.

# INFÀNCIA




## INFANCIA 42, maig-juny 1988

Magnani, M., «Cap a una continuitat educativa entre l'escola bressol i el parvulari», 10-13 orr.
0-3 eta 3-6 etapen arteko iraupen pedagogikoa italiar ikuspegitik.

Fons, M., «Racons per aprendre a llegir i a escriure», 20-25 orr.
Bartzelonako Estel Eskolaren esperientzia.

## INFANCIA 43, juliol-agost 1988

Montoli,R.,Leggio,M.L., «L'adaptació del nen a l'escola bressol», 12-18 orr.
Haurra haurtzaindegian hasten deneko erreakzio psikosomatikoen ulerkuntza.

Riera, M., «La cuina a l'escola», 24-25 orr.
Sukaldaritza eskolan eta honen posibilitate pedagogikoen esperientzia.

## INFANCIA 44, setembre-octubre 1988

Soler, J., «L'escola festiva, ¡tant que si!», 5-7 orr.
Artikuluak honako galderari erantzun nahi dio orokorrean: zergatik festak eskolan?

Escola, P. Martorell, « L'observació del temps a parvulari», 14-16 orr.
Eskola honetan eguraldi-aldaketak analizatzeko darabiltzaten lanmetodoak.

Sellarès, R., «Les consequènces psicològiques del divorci dels pares en els nens», 21-26 orr.

## INFANCIA 45, novembre-desembre 1988

**Aldizkari honetatik ondoko artikulua itzuli dugu:**

**Mata, M., «La ingegració de l'educació infantil al sistema educatiu», 4-9 orr.**

**Artikulu honetan, historia labur bat egin ondoren, Marta Matak Haurreskolaren gaurko egoera esplikatzen du eta datorren Erreformak, haur txikien hizkuntzarako ekas ditzakeen posibilitateak adierazten du.**

**Feu, M.T., Vilarnau, M.T., «Incorporem l'entorn a la classe», 16-19 orr.**

**Patte, G., «El temps d'un conte. Un viatge amb oncle Elefant», 24-30 orr.**

**Toro, J., «L'ansietat en la primera infància», 32-34 orr.**

# PERSPECTIVA ESCOLAR




## PERSPECTIVA ESCOLAR 127, setembre 1988

Gai monografikoa: «L'aventura del joc», 2-22 orr.
Jolasari buruz hainbat ikuspegi.

**Aldizkari honetatik ondoko artikulua itzuli dugu:**
**Sellarés, R., «El paper de l'adult davant del joe infantil», 14-18 orr.**
**Artikulu honetan eta progresiboki, autorea honetaz mintzatzen da: zer den jokua eta konkretuki joku sinbolikoa; beronen eboluzioa haurraren bizitzan zehar eta garapenaren etapa desberdinetan, helduak eduki behar duen rola, eragina eta laguntza, haur jokuen aurrean, hezitzaileentzat, artikulu interesgarria da.**

## PERSPECTIVA ESCOLAR 128, octubre 1988

Gai monografikoa: «Matemàtica i vida quotidiana», 2-28 orr.

Delalande, F., «L'educació musical de 0 a 6 anys», 31-36 orr.

# Familia-eskolan; Gurasoekiko harremanak



Gaur egun, nahiz eta eskola partehartzaile eta integratu batetaz askotan hitz egin, gure ustez zentroa eta gurasoen arteko harremanei ez diegu ematen daukaten garrantzia; kontutan eduki behar dugu haurrarentzat, batez ere txikia denean, bere mundu guztia familia eta eskola izaten direla.

Harreman hau beharrezkoa da, bai umeari buruzko ezagupenak eta aportazioak elkartrukatzeko, bai umearekin eduki behar ditugun jokabideak denon artean aztertzeko jarrera berdin bat edukitzen saia gaitezen; eta hainbat eta hainbat gauza daude denon artean aztertzeko. Harreman honetan, bai zentroa eta bai gurasoak aberasten dira, eta batez ere haurra.

Horregatik, kurtsoan zehar, eguneroko harreman-kontaktuez aparte, hainbat bilera antolatzea interesgarria iruditzen zaigu: bai kurtsoa hasi aurretik, lehen kontaktu bat zuzendariarekin, zentroaren berezitasunak azaltzeko, eta gero andereñoarekin, elkar ezagutzeko eta umeari buruzko datuak biltzeko. Ondoren, adin horretako guraso eta andereñoen arteko bilera bat, adinaren ezaugarriei guruz hitz egiteko eta taldean nola lan egiten den azaltzeko, zein materialekin, gela ezagutzeko, etabar. eta batez ere, umearen adaptazio-epearen garrantziari buruz hitz egiteko.

Gero, kurtsoan zehar, arazo puntualen bat ez baldin badago, guraso bakoitzareki hiruhilabetero elkarrizketa egitea komenigarria da, umearen eboluzioa aztertzeko, bai etxean eta bai gelan.

Ekintza bereziren bat dagoenean ere, gurasoak informatuta edukitzea beharrezkoa dela uste dugu.

Baina iruditzen zaigu beste zulo bat hor gelditzen zaigula: momentu honetan gure kezka, agian, izango litzateke ez dugula lortu gurasoak gurekin batera eskolan integratzea, ez bakarrik hitzaldi eta elkarrizketetan parte hartuz, baita ume eta andereñoekin batera eskolako parte bat gehiago izanik, beraiek ere aportatzeko asko bait daukate.

Honetarako, uste dugu gure aldetik lan haundia egin behar dugula gurasoak eskolara erakartzeko.

Baina hau agian beste momentu batetan sakonago aztertzeko gaia litzateke...

UME-ZAINTZA HAURRESKOLA
(1-6 urte)
ARRASATE

## LIBURUAK

**Alava, Palacios; ¿Es feliz un niño en la guardería? Narcea, Madrid, 1981**
- Importancia del periodo 0-6 años
- Las guarderías. Todo lo que los padres deben saber sobre ellas.
- Orientaciones a los padres. Actitudes y actividades.

**Berge, A. Las dificultades de vuestro hijo. Morata, Madrid 1976**
- El oficio de padre.
- Si os separáis de vuestro hijo.
- Niños y padres nerviosos
- El niño que permanece «bebé»
- El niño que moja su cama
- ......................
- El fracaso escolar.

**Brouck, Van den, J., Manual para hijos con padres difíciles. Pomaire, Barcelona 1980**

**Cervera, M. Feliu, H. Asesoramiento familiar de educación infantil. Visor, Madrid 1984**
- Comportamiento: generalidades
- Modificación del comportamiento
- Algunos comportamientos desadaptados
- Comportamientos adaptados.

**Gonzalez Almagro, I. Familia y educación en VARIOS, Sociología y Psicología Social de la educación, Anaya, Madrid 1986, 445-446 orr.**
- Origen de la familia.
- Tipos y evolución de la familia
- Funciones de la familia
- Relación familia-escuela
- Conclusiones
- Lecturas recomendadas

**Lorenzo, M. Las Asociaciones de Padres, en VARIOS, Organización escolar, Anaya, Madrid 1985, 322-339 orr.**
- Fundamentos legales
- Los estatutos
- Estructura
- Campos de acción
- Un modelo de estatutos
- Bibliografía

**Pérez, M.L.; Calzada, P., Escuela infantil y familia, en VARIOS La escuela infantil de 0 a 6 años, Anaya, Madrid 1988**
- El niño y el ambiente familiar
- Los padres como estimuladores del desarrollo socio-afectivo
- Función de la Escuela Infantil
- Relación con el grupo de iguales
- Sugerencias prácticas
- Bibliografía

**Villalta, M., Los padres en la escuela, Laia, Barcelona 1987**
- La escuela en una sociedad democrática
- ¿Qué deben saber los padres sobre el centro escolar?
- Planificando el futuro: el Proyecto educativo
- Nuestra escuela por dentro: el reglamento de régimen interior
- Los padres organizados: Asociaciones de padres de alumnos
- Cuestiones prácticas para la organización de una APA
- Cómo resolvemo la economía. Las cuentas claras
- ¿Qué podemos ofrecer?
- Evaluación de nuestro trabajo
- Documentación práctica y Bibliografía

**Taylor, B.J., Queridos mamá y papá: ¿Qué hacer con el niño preescolar, Narcea, Madrid 1981**
- Orientaciones sobre el desarrollo físico
- Desarrollo intelectual
- Desarrollo emocional
- Desarrollo social
- Desarrollo moral

## ALDIZKARIAK

* Agazzi, Seminario, Padres y maestros juntos, Cuadernos de Pedagogía 155, enero 1988

* Amat, M.D., Miquel, C., La necessitat de la participació dels pares en la gestió escolar, Butlletí dels mestres 205, maig 1986, 7-8 orr.

* ANDER DEUNA IKASTOLA, Gurasoen parte hartzearen adibide on bat, Eskola 8, 1985eko ekaina, 4-6 orr.

* Alarcon, J.L., Los talleres y la participación de los padres, Reforma de la escuela 12, noviembre 1979, 19-20 orr.

* Alvarez, A., El País de nunca jamás, Cuadernos de Pedagogía 147, abril 1987, 8-11 orr.

* ASSOCIACIO DE PARES (FAPAC) Entrevista amb R. Perales, Guix 85, noviembre 1984

* Taula oberta: L'escola i els pares, Guix 85, noviembre 1984, 4-11 orr.

* Barcia, E.S. Escasa relación entre padres y profesores según una encuesta, El País Educación 69, 25 octubre 1983

* Batzu, La gestión de la escuela: padres y maestros, Reforma de la escuela 10, septiembre 1979

* Batzu, Orientaciones per a pautes d'entrevista amb els pares, Butlletí dels mestres 180

* Batzu, Bibliografía, Guix 85, noviembre 1984, 33-35 orr.

* Castro, E., El éxito educativo depende de una enseñanza que enlace la casa, la escuela y la comunidad, El País Educación 104, 26 junio 1984

* Condado, E., La primera relación familia-centro, Cuadernos de Pedagogía 111, marzo 1984

* Ferradas, L., Preescolar na casa; -elementos didácticos-., Cuadernos de Pedagogía 119, noviembre 1984

* Gratacos, M., Padres y maestros: informes y entrevistas personales, Reforma de la escuela 25, enero 1981, 16-19 orr.

* Relació pares-educadors a l'Escola Bressol, Perspectiva escolar 65, 1982, 52-53 orr.

* Martínez, A., La evolución de las Asociaciones de Padres en Cornellá, Reforma de la escuela 8, junio 1979, 21-23 orr.

* Mata, M., Familia, societat i Escola Bressol, Perspectiva escolar 64, 1982, 46-47 orr.

* MONS, UNIVERSITAT DE, Una experiencia d'Educació familiar, Butlletí dels mestres 206, juny 1986, 30-33 orr.

* Montoli, R., Relació pares-educadors. Per qué?, Infancia 23, marzo 1985, 13-19 orr.

* Muñoz, Rueda, Los padres en la escuela, Cuadernos de Pedagogía 28, abril 1977, 3-6 orr.

* Mula, F., Una experiencia de participació, Guix 85, noviembre 1984, 11-15 orr.

* Padilla, J., La entrevista, Cuadernos de Pedagogía 131, noviembre 1985, 42-45 orr.

* Padilla, J., Las relaciones con los padres en el parvulario, Cuadernos de Pedagogía 110, febrero 1984, 21-23 orr.

* Pérez, R., Psicodinámica de las relaciones padres-maestros, Cuadernos de Pedagogía 37, enero 1978, 12-13 orr.

* Perramon, M., El café de las tres, Infancia 27, desembre 1985, 11-13 orr.

* Punti, R., Los padres en la escuela, Cuadernos de Pedagogía 78, junio 1981, 18-19 orr.

* Serra, A., Los padres en movimiento, Reforma de la escuela 4, febrero 1979, 32-35 orr.

* Torre de la, J.M., Escuela de padres, Cuadernos de Pedagogía 101, mayo 1983, 9-10 orr.

* Tschorne, P., Escoles actives de pares, Guix 85, noviembre 1984, 19-23 orr.

* Tschorne, P., Aproximació al rerafons psicològic dels conflictes pares-mestres, Butlletí dels mestres 205, maig 1986, 8-11 orr.

* Tschorne, P., Un difícil entendimiento, Cuadernos de Pedagogía 147, abril 1987, 8-11 orr.

* Tschorne, P., Lo que los padres pueden hacer: marco legal, participacion, etc., Cuadernos de Pedagogía 147, abril 1987, 16-33 orr.

* Tschorne, P., Para saber más, Cuadernos de Pedagogía 147. 34-35

* Turon, C., La relació pares-educadors a la Llar d'infants, Butlletí dels mestres 214, marc 1987, 11-14 orr.

* Veci, P., Jorganes, M., Los padres van a la escuela, Cuadernos de Pedagogía 159, mayo 1988, 36-38 orr.

* Vilar, J., Els pares dins de l'aula, Guix 85, nov. 1984, 15-19 orr.

* Xirol, Escola Bressol, Comisió de padres y educadores, Cuadernos de Pedagogía 85, enero 1982, 49-51 orr.

# Hasiera zikloan irakurketa idazketa lantzeko zenbait baliabide



## JOLASAK

**Irakurketa eta idazketa lantzeko jokuen fitxa-bilduma**

Bilduma honetan irakurketa-idazketa lantzeko zenbait jokuen azalpena agertzen da:

- Helburuak
- Materialak
- Jolasen deskribapena

**Denbora-pasak**

Denbora-pasa hauen bidez irakurketa eta idazketaren arlo ezberdinak lantzen dira:

- Hizki familiak ezagutu
- Hitz konkretuen ezagupena

Material hau haurrek erabiltzeko prestatuta dago.



## IRAKURKETA IDAZKETA LANTZEKO MATERIALAK:

Material hauek egoera ezberdinak hartzen dituzte abiapuntu bezala, beraien helburua: eredua izan daitezkeen ekintzak azaltzea.

**Irakurketa lantzeko materialak:**

Testu laburrak: (Elkarrizketak, deskribapenak...)

- Marrazkiak egiteko
- Marrazkiak osatzeko
- Zerbait aurkitzeko
- Marrazkia eta testua lotzeko

**Idazketa lantzeko materialak**

- Osatzeko testuak
- Egia ala gezurra
- Txisteen bildumak
- Ahokorapilo, esaera... bildumak

## LIBURU BILDUMAREN INGURUKO ARIKETAK

Material hau Irakurketa-idazketaren erreziklai taldeak burutu du: bilduma bakoitzeko liburu bakoitzaren inguruan haurrek osatzeko fitxa bat prestatu da; baita liburuen irakurketa bultzatzeko ekintza bat ere.

**Bildumak:**

- **Sirena bilduma**, Elkar Argitaletxea (Donostia)
- **Euskal Leiendak (Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa)**. Erein Argitaletxea (Donostia)
- **Pan con chocolate**. Colección Graó, Editorial Teide, Barcelona.



# Aurreko «JAKINGARRIAK» aleen baliabideak

## JAKINGARRIAK 7:

- Ipuin hustuketak
- Euskerako akatsak zuzentzeko ariketak
- «IKUSI MAKUSI» ipuin bildumako irudi guztiak txikituak
- Haurrak euskalduntzen bideoaren bidea: 1, 2, 3, 4, 5, 6, eta 7 zintaren fitxeroa
- Hizkuntza lantzeko bideoaren erabilpena (Erdiko Zikloa)
- Diapoaudioak
- Hizkuntza lantzeko baliabideen bilduma
- Udalekuak antolatzeko pautak
- Actividades científicas para niños menores de 7 años
- Bertsolaritza lantzeko ariketak
- Irakurketa lantzeko denbora pasak
- Txotxongiloa egiteko panpinak

## JAKINGARRIAK 8:

- KALAKARI, Erdiko Zikloan euskara lantzeko ikasmetodoaren grabazioak (3 kasete)
- Euskara maila neurtzeko frogak
- Test de lengua GALBAHE C1 y C2
- HITZULPENA: Grunderbeeck, Ven Nicole, Evaluación de estrategias de identificación de palabras del lector principiante o con dificultades.
- Ipuin grabatuak eta egokituak (Eskolaurrea)
- Dantzatzeko kantak, jolasen kantak, suertatzeko formulak
- 1986/87 ikasturtean B ereduko Eskolaurre eta Hasera Zikloko Erreziklain sortutako materiala.
- 7 urtetik beherakoentzat Ekintza Zientifikoak

## JAKINGARRIAK 9:

- HITZULPENAK: Garcia-Debanc, D.; Mas, M., Propositions pour une évaluation formative des écrits, Reperes 66, mai, 1985, pp 3-10
- HITZULPENA: Mas, M., L'évaluation de la cohesion interphrastique. De la progression thématique a l'élaboration d'outils, Reperes 66, mai 1985, pp 53-61

## JAKINGARRIAK 10:

- KALAKARI 3. Erdiko Zikloko 5. mailan Euskara lantzeko metodoaren grabazioak.
- Bertsolaritza lantzeko ariketak
- Fruitu eta barazkien DOMINOA
- Aditza lantzeko jokuak (Erdi eta Goi Ziklorako)
- Bertso eta koplak doinuak
- Familiak osatzeko KARTA JOLASAK
- Getxoko GEROA ikastolako irakasleek lau eta bost urteko umeentzat grabatutako eta egokitutako ipuinak.
- ITZULPENA: Hezkuntza Biltzarran CARDINET irakasleak emandako ponentzia: La objetividad de la evaluación
- ITZULPENA: Villarrubias, P., eta beste batzuk: Experiencia de la escuela Barkeno de Barcelona. Nuevas perspectivas sobre la representación escrita en el niño.

# Aurreko «JAKINGARRIAK» aleen gai monografikoak

1. IRAKURKETA ETA IDAZKETA
2. JOKUA - HAUR LITERATURA
3. 0-7 URTE BITARTEKO HAURRA
4. GELAREN ANTOLAKETA - TXOKOAK
5. HAURTZAINDEGIAK
6. PLASTIKA
7. MINTZATZEN IKASTEN, MINTZATZEN IRAKASTEN (1)
8. MINTZATZEN IKASTEN, MINTZATZEN IRAKASTEN (2)
9. ESPERIENTZI ARLOA
10. ELEBITASUNA
11. HAUR LITERATURA

Egilea: Dokumentazio Zentrua

Argitaratzailea: Irakaslego Eskola




DOKUMENTAZIO ZENTRUA (0-7urte)
IRAKASLEGO ESKOLA
Escuela Universitaria de Profesorado
ESKORIATZA Gipuzkoa